

EGOERA EKONOMIKOA. Euskadiko Kutzaren txostenak 25 urteko bilakaera aztertu du

Susperraldi ekonomikoa, «datozen hilabeteetarako»

2003. urtea 2002a baino hobea izango dela uste du Inmaculada Gallastegi txostengileak

Erredakzioa | BILBO

Mundu zabaleko ekonomiak hobera egingo du datozen hilabeteetan. Hala iragari du Inmaculada Gallastegi adituak, Euskadiko Kutzaren txostenaren aurkezpen ekitaldian.

Gallastegik azaldu duenez, egia da susperraldi ekonomikoa etengabe atzeratzen ibili dela azken garai honetan, aurreko hilabeteetarako espero zen eta. Baina, susperraldi atzeratu arren, ekonomiak hazten jarraitzen duela ohartarazi du, «ez da

aurreko urteetako erritmoan hazten ari, baina hazten ari da; beraz, ez gaude jardura ekonomikoa jaisteko garaian».

Hala, Gallastegik aurreratu du 2002. urtea ona izango dela, eta 2003a oraindik hobea. Izan ere, euskal ekonomia azken urteetan «bide onetik» ibili da eta, etorkizunari ere arrakastaz aurre egin ahal izateko, aditu honek ezinbestekotzat jo du teknologiaren garapenari eusteko ahaleginak egitea, baita langileen trebakuntza sustatzeko eta norberaren jardueraren inguruko ezagupena sakontzeko indarra egitea ere.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Gallastegik susperraldia datozen hilabeteetarako iragarri du.

Euskal ekonomia egokitzen prozesua burutu du azken urteetan, eta horri esker, nazioarteko goraldi ekonomikoaz baliatu ahal izan da. Datozen hilabeteetako susperraldiaz ere baliatu ahal izango da euskal ekonomia, baina horretarako «lehiakortasunari eutsi egin behar dio», Gallastegiren hitzetan.

Hala, beste ezeren gainera, euskal ekonomiak aurreko urteetan «egokitzapen eta berregituraketa burutzeko egin duen

ahalegina» nabarmendu du txostenak. Ahalegin horri esker, euskal ekonomia «onbideratuta» dago gaur egun: eraberritua, hobeto kudeatu eta antolatutako enprekin, merkatuen inguruko ezagupen hoberekin, hobeto prestatutako eta prestakuntza malguta duten langileekin eta, batez ere, duela urte batzuk baino enplegu kopuru handiagoarekin, «nahiz eta enplegua izan aurreko urteetan gehien kaltetutako aldagai».

KAPITAL ERRENTEN FISKALITATEA. Akordiorik ez EBren eta Suitzaren artean bankuko sekretuari buruz

Fiskalitatearen inguruko akordioa 2003ko urtarrilera arte atzeratu dute Hamabostek

Agentziak | BRUSELA

Kapital errenten fiskalitatearen inguruko akordioa 2003. urteko urtarrilera arte atzeratu dute Europako Batasuneko (EB) Ekonomia eta Finantza ministroek, Suitzarekin akordio bat lortzeko dituzten zailtasunak direla eta. Erabakia atzeratzeko proposamena EBko lehendakariak danimarkarrak egin zien atzo Hamabostei, zailtasun horiek ikusirik.

Hamabostek kapital errenten

gainen fiskalitatea harmonizatu aurretik, EBtik kanpoko sei lurralderekin hitzartzea erabaki zuten, horien artean Suitzarekin, lurralde horietako neurri fiskalak eta EBko lurraldeetakoak antzekoak izan zitezkeen. Akordio hori 2002rako lortu beharra zegoen, baina badirudi ezinezkoa izango dela, Suitzako Gobernuaren eta Europako Batasunaren artean sortutako ezadostasunak direla eta.

Izan ere, Danimarkako lehendakariak Suitzarekin eginda-

ko negoziazioen emaitzak ez dira aski izan EBko lurralde gehientzat, eta ondorioz, atzo ez zen adostasunik izan EBko lurraldeen artean kapital errenten gaineko fiskalitateari buruz.

Suitzarekin akordio bat lortu nahi da

Arazo negusia bankuko sekretua da. Europako Batasunak akordio bat lortu nahi du Suitzarekin, kapital errenten inguruko informazioa elkarri trukatzeko. Horrela, iruzur fiskalaren eta

antzeko delituen kasuetan, ikeritutako herritarren kapital errenten gaineko informazioa emateko konpromisoa lortu nahi dute Hamabostek.

EBk informazioa elkarri trukatzeko sistema automatikoa proposatu du. Suitzak, berriz, iruzur eta antzeko kasuetan soilik informazioa emateko prest agertu da.

Gauzak horrela, Hamabostek aurrezkiaren fiskalitatearen harmonizazioa aurten lortu nahi bazuten eta akordioa atzeratzea inoren gustukoa ez bada ere, badirudi akordiorako oinarririk ez dagoela eta hitzarmena atzeratu egingo dela.

BURTSA. Bolumen eskaseko eta albiste gutxiko egunean, irabaziak nagusi

Biharamuna ez da inoiz hilko

J. B. Andueza |

Biharamuna ez da inoiz hilko da 007 agente ezagunaren filmetako baten izenburua eta baita atzoko indizeen jarreraren deskribapena ere. Biharamunari begira baitzeuden denak, egun lasai batean. Bolumen eskasa eta interes handiko albisterik ez, biharamunak zer esango zain.


Nahiz eta egun hasieran aldatasuna izan, bukaeran irabaziak pilatu ziren. Europan CAC-40 nabarmendu zen (+%1,5). Ibex-35ak, berriz, %0,62 egin zuen aurrera, bereziki SCH (+%1,5) eta Repsol YPFk (+%3,2) bultzatuta. Argindar konpainietan diru mugimendua egon zen Union Fenosatik Iberdrola eta Endesara.

DATUA

Credit Lyonnais (+%0,6) bankuaren partaidetza bereganatzeko lehiaren beste kapitulu bat bizi zen atzo. Credit Agricole azken egunetan bankuaren gaineko partaidetza handitu du eta, orain, BNP Paribasen gainetik aurkitzen da. Horrek ez zuen eragotzi Agricole %0,6 jaistea.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%0,54** | Azken indizea **1.154,43** | Aurreko indizea **1.151,52**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	8.589,07 (+%0,17)
Tokio (Nikkei)	8.727,66 (-%0,87)
Madril (IBEX-35)	6.371,50 (+%0,62)
Paris (CAC-40)	3.190,09 (+%1,51)
Londres (FTSE 100)	3.974,90 (+%1,27)
Frankfurt (DAX)	3.196,05 (+%0,89)
Milan (Mibtel)	18.085 (+%0,77)

* Egundira arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	1,0067
Libera Esterlina	0,6406
100 Yen (Japonia)	12418